# Bestelako Xedapenak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

**322**

EBAZPENA, 2010eko urriaren 27koa, Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariarena, Amurrioko Barruti Judizialaren Zerbitzu Orokor Prozesal Erkidea funtzionamenduan jartzeko eguna ezartzeko dena.

Amurrioko Barruti Judizialeko Zerbitzu Orokor Prozesal Erkidearen eraketa onartzeko den 2010eko uztailaren 23ko Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren Aginduko Azken Xedapenetako Lehenengoaren arabera, ezartzen da zerbitzu hori funtzionamenduan jarriko dela Barruti Judizial honen langileek akoplatzeko prozesua bukatzen dutenean.

Akoplatzeko prozedura Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariaren 2010eko urriaren 27ko Ebazpenaren bitartez ebatzi ondoren, honako hau,

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.***– Amurrioko Barruti Judizialaren Zerbitzu Orokor Prozesal Erkidea funtzionamenduan jartzeko eguna 2010eko azaroaren 2a ezartzea.

***Bigarrena***.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen. Eta, beraz, horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justizia sailburuordeari, ebazpena Justiziako intraneten argitaratu eta hilabeteko epean.

Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 27a.

Bulego Judizial eta Fiskaleko zuzendaria,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

**322**

RESOLUCIÓN de 27 de octubre de 2010, de la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal, por la que se determina la fecha de entrada en funcionamiento del Servicio Común Procesal General del Partido Judicial de Amurrio.

En virtud de la disposición final primera de la Orden de 23 de julio de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueba la creación del Servicio Común Procesal General del Partido judicial de Amurrio, se establece que la entrada en funcionamiento de dicho servicio se producirá una vez se haya finalizado el proceso de acoplamiento del personal de este Partido judicial.

Resuelto el proceso de acoplamiento por Resolución de 27 de octubre de 2010 de la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal,

RESUELVO:

***Primero***.– Establecer el día 2 de noviembre de 2010 como fecha de entrada en funcionamiento del Servicio Común Procesal del Partido judicial de Amurrio.

***Segundo***.– Contra la presente Resolución cabe el recurso de alzada ante el Viceconsejero de Justicia en el plazo de un mes a contar desde la publicación de la misma en la Intranet del Gobierno Vasco para la Administración de Justicia.

Si transcurriesen tres meses desde la interposición del recurso de alzada sin que recaiga resolución, se podrá entender desestimado, quedando expedita la vía contencioso-administrativa.

En Vitoria- Gasteiz, a 27 de octubre de 2010.

La Directora de la Oficina Judicial y Fiscal,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.